



Marko Txopitea, Jabi Zabala eta Joxe Rojas, mahai-inguruko une batean.

Hedabideak eta Internet

Abantaila digitalei neurria hartzen

Internetek hainbat abantaila eskaintzen dizkio hedabide bati: interaktibitatea, informazioa berreskuratzea, pertsonalizazioa, multimedia aukerak eta lengoaia berri bat. Baina euskaraz dihardugun hedabide tradizionalak nola egokitu gara errealitate horretara? Marko Txopitea (Indymedia), Joxe Rojas (Topagunea) eta Jabi Zabala (irratia.com) bildu ditugu mahai baten bueltan, gaiari buruz hitz egiteko.

ELISABETH POMBO

Argazkiak: Nagore Lozano

Nola aprobetxatzen dituzte euskarazko hedabide tradizionalak Internetek eskaintzen dizkieten abantailak?

Marko Txopitea: Nire ustez hedabide tradizional eta ez tradizionalen banaketa hori egiteak ez dauka zentzurik. Gero eta hedabide gehiago daude eta dibertsitate handiagoa dago. Euskarazko medioen azterketa egin behar bada, tradizionalak ez diren beste medioak ez dira ahaztu behar, gero eta garrantzi gehiago daukatelako eta gainera Interneten gauza asko ari dira egiten.

Jabi Zabala: Geroz eta parekotasun handiagoa dago herritarren –gaur egun edonork sor dezake bere bloga– eta hedabide handien artean eta tartean euskal hedabideak daude –nik euskal medioak ez ditut hedabide handi bezala ulertzen ezta blog bezala ere–.

Joxe Rojas: Medioen arteko uztartzea bizi dugu eta gure artean badaude adibideak, *Goiena* eta *Uztartzia* kasu. *Goienkariaren* iritzi atala *Goienak* jarritako blog plataformetan egindako ekarpenekin elikatzen da batik bat.

**JABI ZABALA:**

"Gaur egun komunitatea sortzera bideratutako proiektuek dute arrakasta. Zer hedabide tradizional, demagun *Berrria*, ARGIA... dago prest lehen orrialdean edo noren erantzunak edo iruzkinak jartzeko?"

**JOXE ROJAS:**

"Hedabideekin ere SGAE eta musika iturriekin gertatzen dena gertatzen da. Aldatzen ari da orain arte eurek kontrolatzen zuten edukia banatzeko modua, jarraitu nahi dute negozio horretan, baina lehen-goak jada ez du funtzionatzen".

**MARKO TXOPITEA:**

"Internet munduan hedabide gehienak asinkronoak direnez eta gainera, esteken bidez hainbat lekutara joan ahal garenez, interesatzen zaiguna ikusten dugu eta jada ez dago lehen hedabideekiko zegoen fidel-tasun hura".

Horrek blogaria paperezko euskarrira hurbiltzen du eta paperekoaren irakurlea digitalera. Bestalde, hor daude *Karkara* edo *Plentzian Pil-pilean*. Azken horren kasuan, Internetekoa ez da papereko bertsio digitala, baizik eta beste zerbait. Bere helburua da herritarrentzako komunikazio plataformazitatea. Tokiko hedabide gehienak euskararen erabilera sustatzeko komunitatea sortzeko helburuarekin ari dira sarean.

M. Txopitea: Hedabide batzuen kasuan, Interneten daukaten webgunea ez da soilik euren hedabide tradizionalaren isla. Hor sortzen den informazioak badu bere helburu propioa. *Gaur8n* adibidez, blogak daude eta *Garak* larunbatetan ateratzen duen *Gaur8* gehigarriko Interneten dauden eduki horietatik interesgarrienak hartzen ditu. Bestalde, gehigarri horretan *Zabaldu.com*-en bozka gehien jaso duten albisteei orrialde bat eskaintzen diete. Beraz, off-line mundura pasatzen dituzte on-line munduko kontuak.

J. Zabala: Medioak eta medioak daude. Are gehiago, nik esango nuke kazetariak eta kazetariak daudela. Kazetaria oso 2.0 baldin bada, baliabideak ongi uztautuko ditu.

J. Rojas: Hori hedabideen barruan gertatzen da, baina baita hedabideetara informazioa bidaltzen duten prentsa bulegoen barruan ere. Internet kalitatezko informazioa jaisteko tresna gisa ulertu behar da.

Medioen arteko integrazio adibideak ematen ari zarete. Baina aurki al dezakegu Interneterako espresuki pentsatutako edukirik?

M. Txopitea: Interneteko irakurleak ez du irakurtzen paperean irakurriko lukeen modura. Hizkuntzak beraz, gutziz desberdina izan beharko luke. Askotan Interneten oso testu luzeak aurkitzen ditugu eta estekak ipini ahal ziren lekuan ez dira ipintzen.

J. Rojas: *Goiengan* Iban Arantzabal dabil horrelako gaiekin oso kezkatuta. Erredaktore eta albiste multimedia lantzen ari dira. *Baleike* Zumaiako herri aldiakariaren kasuan, papereko formatua eta Internetekoa gutziz desberdinak dira. Internetekoan egunean eguneko albisteak lantzen dituzte, bideoak sartzen dituzte... Paperezko hilabetekariari aldiz, asteburuko gehigarri baten itxura ematen diote. Nik uste dut badatorrela jendea ideia horiek dituen.

Nola erabiltzen dituzte euskarazko hedabideek web 2.0 baliabideak?

M. Txopitea: Euskal hedabideek beste hedabideek bezala hor erronka handia daukate, aukera asko, baina baita zailtasunak ere. Web 2.0 ez da soilik sindikazioa. Hedabideek komunitate bat daukate, irakurleak edo ikusleak dituzte eta web 2.0 ongi txertatzen da filosofia horretan. Zenbait ekimen egin dira, baina ez dute behar bezala funtzionatu. Jendeak ez daki askotan albiste baten azpian zerbait idatzi dezakeela

eta beste webgune batean egiten dute. Zaila da, ez soilik tresnak ipintzea, baizik eta sozialki hori martxan jartzea.

J. Rojas: Euskaldunok masa kritikoarekin arazoa daukagu. Azken finean, Interneten dabilen jendea irakurleen ehuneko txiki bat da eta ehuneko txiki horren ehuneko txiki bat da erantzuten duena, bozkutzen duena... Jaurlaritzaren datuen arabera, 600-700 mila irakurlerengana iritsi gaitezke, gehien jota. Hasi hortik kentzen eta geratzen zaigun kopurua oso mugatua da.

M. Txopitea: Baina zein da arazoa? *Digg* agregatzailean ikerketa bat egin zuten eta erakutsi zuten erabiltzaileen %1ak soilik bidaltzen duela informazioa. *Wikipedia* berriz, %5ak idazten du eta hori errekorra da. Erabiltzaile aktiboak eta pasiboak daude. Eta hori beti gertatuko da.

J. Zabala: Gure komunitatea txikia izan daiteke, baina nahiko bizia da. Bestalde, gaur egun komunitatea sortzera bideratutako proiektuek dute arrakasta. Demagun *MySpace*. Agian ez dituzte 2.0 ezaugarri asko, baina komunitatea sortzera bideratutako ezaugarri sinple batzuk dituzte.

M. Txopitea: Baina *MySpace* ez da hedabide bat.

J. Zabala: Ez, ez da hedabide bat. Baina zer hedabide tradizional, demagun *Berria*, ARGIA ... dago prest lehen orrialdean edonoren erantzunak edo iruzkinak jartzeko?

M. Txopitea: Hor egia biribila esan duzu. Hedabide tradizional batek Internetera jauzi egiten duenean ezin du bere lerro editoriala mantendu. Interneten mundua ulertzeko modu desberdinak aurki daitezke, baina sarean modu naturalean gertatzen den hori ez da hedabide tradizioaletan gertatzen. Hedabideek komunitatea sortu nahi dute, interaktibitatea sustatu, baina lerro batean bakarrik. Nola lortzen da hori?

J. Rojas: Hedabideekin ere SGAE eta musika iturriekin gertatzen dena gertatzen da. Aldatzen ari da orain arte eurek kontrolatzen zuten edukia banatzeko modua, jarraitu nahi dute negozio horretan, baina lehengoak jada ez du funtzionatzen.

M. Txopitea: Hedabide tradizionalek ikasi behar dute zarata maila bat onartzen (eztabaidak, euren lerro editorialarekin bat ez datozen iritziak...). *Deia*, *Gara*, *Berria*... Guztiak komunitate bat daukate eta komunitate horretara irekitzen badira, nahiz eta zarata egon, zarata horren gagnetik komunitatea indartu egingo dute.

Aztertzen ari garen gaian, ba al dago Euskal Herrian medio erreferenterik?

M. Txopitea: Nik erreferenterik ez dut ikusten. Ekimen zehatzak ikusten ditut: batzuek

bideoak jartzen dituzte, beste batzuek komunitatea hobeto ulertzen dute...

J. Zabala: Nik eguneroko nabigazioan erabiltzen ditudan batzuk ditut. Horrek ez du esan nahi hain maiz bisitatzen ez ditudanak eskasagoak direnik.

M. Txopitea: Internet munduan hedabide gehienak asinkronoak direnez eta gainera, esteken bidez hainbat lekutara joan ahal garen, interesatzen zaiguna ikusten dugu eta jada ez dago lehen hedabideekiko zegoen fideltasun hura. Bestalde, gaur egun hedabide batek mota guztietako albisteak emateak ez dauka zentzurik, zeren jendea hedabide batera sartzen denean, gai jakin batzuen eta komunitate baten bila doa.

Baina edukiak pertsonalizatzeko moduak badaude, hori da hain zuzen ere Internetek eskaintzen digun abantailatiko bat.

M. Txopitea: Internetek eskaintzen dizkigun abantailetatik, gutxien aprobetxatzen dena pertsonalizazioarena da eta nire ustez etorkizun gutxien duena ere, horixe da. Nahiz eta aukera hori eman, jendeak ez du erabiltzen. Pertsonalizazioa egon baino, hedabideak beraiek espezializatu behar dute gai zehatzetara. Azken finean sindikazioa hori da. Hedabideek sindikatzei aukera ematen du eta erabiltzaileak gai jakinetara sindikatzen dira, baina hortik soilik %1a baino ez dute irakurtzen.

Jendearen parte-hartzearen haritik, zer iritzi duzue "Zu kazetari" bezalako ekimenei buruz, hau da, hiritarra kazetari bihurtzen duten ekimenei buruz?

M. Txopitea: Euskal Herrian badago medio bat jendea kazetari izatera bultzatzen duena, baina ez dugu medio tradizional gisa ulertzen: Indymedia da. Bere leloa da *Don't hate the media, become the media* ("Ez gorrotatu hedabidea, bihurtu hedabide"). Hedabide tradizional batek, kasu honetan EITBk "Zu kazetari" ekimena filosofia horri jarraituz egitea ongi ikusten dut, baina nire ustez EITBren helburua informazioa doan lortzea da.

J. Zabala: Gai honekin lotuta, badago baita ere gaizki ulertutako kalitatearen zaintzaren aldeko jarrera bat. Litekeena da idatzi batzuk kalitate literario aldetik ez izatea maila gorenekoak, baina zer da bilatzen duguna? Informazioa ala literatura?

M. Txopitea: Nire ustez hori aitzakia da, zeren idazten duen pertsona agian ez da kazetaria, baina hitz egiten duen horri buruz asko daki. Zenbat aldiz irakurri diegu zertaz ari diren ez dakiten kazetariei? Nire ustez hedabideak beldur dira euren boterea galtzeko. ■